

LISABI FRIDELL SAIL OFIZIALA

“Zine konbentzionalak ez nau erakartzen”

SERGIO BASURKO

Lisabi Fridell argazki-zuzendari suediarra Berlinen bizi da, baina mundu osoan egiten du lan. Hala fikzio-filmetan nola dokumentaletan egin duen argazkilaritza-lanari esker lortu du ospea. Bere lana ohiz kanpoko da; hitz bakarrean, moldakortasunak definituko luke bere estiloa. Sail Ofizialeko epaimahaikide gisa elkarriketatu dugu.

Goitik behera beltzez jantzirik agertu da elkarriketara, alabaina bere begi urdinek jarrera gogorra leuntzen diote, eta eguzkiari gorroto diola dirudien azal zuriak, egunotan zinema-aretoetako ilunpeak bizileku izan dituela berresten du. “Apenas ikusi dut hiria—esan digu ahots hari ahulaz—, egunean gutxienez hiru pelikula ikusten ditugu eta gero horiei buruz hitz egiteko elkartzen gara. Lan egitera etorri naiz, agian beste noizbait bueltatuko naiz oporretan”.

“Epaimahaikide gisa oso bestelako moduan bizi duzu Zinemaldia, filmak ez dituzu ikusle arrunt bat bezala ikusten. Zerbait nabarmentzekotan espainolez mintzatutako pelikula mordoa ikusten ari naizela esango dizut. Eta pentsa-

Darkness and light

The transgressive Swedish cinematographer Lisabi Fridell is at the Festival to form part of the Official Jury. When she's judging a film she says that she likes to look at all its aspects and not just the photography. As for what her point of view can add to a jury, she thinks that it could be her feminist perspective. She doesn't like work that looks too traditional and over-professional, but wants to see films that she can find inspiration in. When she works on a project she likes to work closely with the director so she can come up with ideas and influence the entire process right from the beginning.

tzen dut—gaineratu du—, zinema honek guztiak nolabaiteko eragina izan dezakeela nire hurrengo proiektuetan. Egia esan, proposamen berriak ikusteko irrikitan nago; zine konbentzionalak, superprofesionalak, ez nau batere erakartzen, film iradokitzaileak ikusi nahi ditut”.

Fridellek lehen film laburra hemezortzi urterekin argiztatu zuen, eta aitortu digunez, “esperientzia zoragarri hura izan zen hau guztiaren abiapuntua”. Orduz gero, egin dituen filmak urratzaileak izateagatik eta balio feministak defendatzeagatik nabarmentzen dira.

Hori horrela, eta betiere dena delako istorioan oinarrituta, bestela kontatzeko modua bilatzen du. Horretarako, askotariko teknika, kolore eta formekin esperimentatzen du, berri- tzeke eta, ahal dela, istorioa hobetzeko. Zuzendarekin lankidetzan hertsian jardutea atsegin du, eta hasieratik eragitea prozesu osoan. “Nirentzat ezinbestekoa da proiektuaren zuzendarekin eseri eta bere asmoez luze zabal hitz egitea, eta gidoia interesgarria izatea, jakina; alderdi teknikoa hizketaldi horien ondotik sortzen da”.



ALEX ABRIL

EL jamón LA pasión DE EUROPA

Pasión por su TEXTURA, su AROMA y sus MATICES.

Pasión por una CULTURA que lo convierte en arte.

Pasión por un SABOR que traspasa fronteras.

JAMONES IBÉRICOS DE ESPAÑA

El contenido de la presente publicidad respalda únicamente la opinión de su autor y es responsabilidad exclusiva del mismo. La Comisión Europea no asume ninguna responsabilidad por el uso que pudiera hacerse de la información que contiene.

hampassiontour.eu
#hampassiontour

JAMONES IBÉRICOS DE ESPAÑA

CAMPAÑA FINANCIADA CON LA AYUDA DE LA UNIÓN EUROPEA

LA UNIÓN EUROPEA RESPALDA LAS CAMPAÑAS QUE PROMUEVEN LAS TRADICIONES AGRÍCOLAS.

ENJOY IT'S FROM EUROPE